

# EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOAREN Hizkuntza Irizpideak

BILBON, 2023KO EKAINAK

---



## Aurkibidea

Aurkibidea .....	1
SARRERA .....	2
EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2022-2026 .....	2
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK .....	2
I ARDATZA.....	3
ZERBITZU-HIZKUNTZA.....	3
1. ERAKUNDEAREN IRUDIA.....	3
2. HERRITARREKIKO HARREMANAK .....	4
II ARDATZA .....	5
LAN-HIZKUNTZA.....	5
1. BARNE KOMUNIKAZIOA ETA LAN TRESNAK.....	5
2. KANPO-HARREMANAK.....	6
3. KUDEAKETA SISTEMA .....	6
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	8
Arduradunak eta baliabideak.....	8
Zabalkundea.....	8
Jarraipena .....	8

## SARRERA

Dokumentu honetan jaso ditugu Euskal Herriko Surf Federazioaren (hemendik aurrera EHSF) euskararen erabilerarako irizpide orokorrak. Irizpide orokor horiek EHSFren euskararen erabilera planetan aplikatuko dira, eta behar izanez gero, osatu eta zehaztu egingo dira.

Betetze-maila aztertuko da egiten diren planen aldizkako ebaluazioetan.

Irizpide hauek zehazteko lantalde bat izan da martxan 2023ko martxoan eta Eusko Jaurlaritzaren "EAEko Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak" dokumentua izan du oinarri.

EHSFren hizkuntza irizpideak EHSFren Zuzendaritza Batzordeak 2023ko otsailaren 14an eta Batzar Nagusiak 2023ko otsailearen 16ean onartu ditu.

Hizkuntza irizpide hauen kudeaketa EHSFko langileei dagokie. Azken ardura Zuzendaritza Batzordearena da.

## EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2026

EHSFk 2022an diseinatu eta onartu du Euskararen plan estrategikoa 2023-2026. Hau da plan estrategikoak jasotzen duen euskararen Bisioa:

**EHSF euskararen sustapenean eta erabileran erreferente izatea, selekzio eta federazioan euskararen ezagutza eta erabileran eragiteko eta motibatzeke lider eta bidelagun izanez.**

Hurrengo 4 urteetarako erronka hauek adostu dira:

1. erronka: hizkuntza instituzionala euskara izatea
2. erronka: euskal surfean euskararen erabilera sustatzea eta bultzatzea
3. erronka: EHSFren eskaintza euskaraz bermatzea eta sustatzea
4. erronka: EHSFren kanpora begirako irudia euskaraz izatea

## HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

EHSFren hizkuntza irizpideak Erreferentzia Marko Estandarrak proposatzen dituen ardatzei jarraituz zehaztu dira:

I ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia
2. Herritarrekiko harremanak

II ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA

1. Barne-komunikazioa
2. Pertsonen kudeaketa
3. Kanpo-harremanak
4. Kudeaketa sistema



---

# I ARDATZA

## ZERBITZU-HIZKUNTZA

---

## 1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

### 1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

#### 1.1.1. Errotulazioa

EHSFren irudi korporatiboko elementuetan euskara presente egongo da.

Bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko eta kanpoko errotuluak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, ahal den neurrian.

- Espaziorik badago, bi errotulu jarri ahalko dira, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.
- Espaziorik ez badago, errotulua euskara hutsez jarri ahalko da, esanahia argitzeko irudi batek lagunduta.

#### 1.1.2. Ikus-entzunezkoak

Hartzaile jakinik ez dutenean, ahal den heinean 2 hizkuntzak erabiliko dira. Horretarako formula desberdinak erabili ahalko dira, adibidez: hizlariak euskaraz eginez gero, azpituduluak gaztelaniaz jarrita.

Hartzaileen ezaugarriek ahalbidetzen badute, soilik euskaraz argitaratuko dira.

### 1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

#### 1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa-oharrak eta paper gauzak

Oro har, EHSFren argitalpenak, iragarkiak, publizitatea eta prentsa-oharrak bi hizkuntza ofizialetan plazaratuko dira.

#### 1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak ( TXAPELKETAK /IKASTAROAK)

EHSFk antolatzen dituen jendaurreko ekitaldietan, euskararen erabilera ekitaldiz ekitaldi zehaztuko da eta ekitaldi bakoitzaren hasieran hizkuntza kudeaketa nola egingo den jakinaraziko da edo guztion artean erabakiko da (partaide kopuruaren arabera). Edozein kasutan, ahalegina egingo da euskara eta gaztelania erabiltzeko, euskarari lehentasuna emanez.

Paperezko euskarriak ele bietan prestatuko dira, euskarari lehentasuna emanez (euskara lehen tokian edo/eta nabarmenduta, adibidez)

Hitzaldian, entzuleen hizkuntza-errealitatearen eta hitzunen gaitasunaren arteko oreka bilatuko da, ahal den heinean aurrez entzuleen gaitasunaren aurreikuspena eginda. Ekitaldia euskaraz egitera bideratuta badago, euskaraz egingo da. Ele bietan egin beharra aurreikusten bada, euskaraz ere eduki garrantzitsuak transmititzea ziurtatuko da eta “osagarriak” (sarrerak, amaierak...) euskaraz ala gaztelaniaz egingo dira, ekitaldi bakoitzaren ezaugarrien arabera (tokia, gaia, hartzaileak...)

Lantaldeak sortzen direnean, euskal hitzunek parte hartzeko aukera izatea sustatuko da.



## 1.3. Ingurune digitala

### 1.3.1. Webgunea eta sare sozialen edukia

Webgunea .eus du dominioa, eta bertatik gaztelaniazko bertsiora joateko aukaera dago. Euskarazkoan dena euskaraz eta gaztelanaizkoan dena gaztelaniaz, nahiz eta kartelak eta abar euskaraz hutsean egon askotan. Normalean euskarazko web orria bideratzen da jende guztia eta hortik norbaitek gaztelaniazkora joan nahi badu hortik doa.

Dokumentuak ele bietan argitaratuko dira, bi bertsioak aldi berean.

Sare sozialetan euskara lehenesteko neurriak hartuko dira, adibidez:

- ~ Mezu ofizialak euskaraz ere argitaratuko dira
- ~ Mezuak hizkuntza bietan argitaratzen direnean, euskarazko mezua lehenengo tokian agertuko da; horretarako, lehenik gaztelaniaz argitaratuko da, eta gero, euskaraz
- ~ Sare sozial batean hari bat irekiz gero, alderantziz egingo da, lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz, hariaren lehenengo agerraldia euskaraz bermatzeko
- ~ Kanpo loturak edo beste orrialderen bateko gaztelaniazko informazioa profileko "horman" txertatzen direnean, horiei buruzko iruzkinak euskaraz ere egingo dira.

## 2. HERRITARREKIKO HARREMANAK

### 2.1. Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzerako orduan

EHSF igorlea bada, idatzizko komunikazioa ele bietan egingo da.

Euskara hutsez egin ahal izango da kasu hauetan:

- Herritarrak (edo federatuak) euskara erabili badu harremanetan jartzeko
- Ohiko harremanetan, Federazioekin adibidez, solaskideak euskarazko komunikazioa lehenetsi badu. Ohiko harremanetan edota askotan errepikatzen diren harremanetan solaskidearen hizkuntza hautua datu basean jasoko dugu eta hark aukeratutako hizkuntza bermatuko dugu banakako harremanetan (emailetan eta telefono deietan adibidez)

Herritarren (edo federatuekin) eskaerei erantzuterakoan:

- Harremana euskaraz nahi duenari euskaraz erantzungo zaio
- Ele bietan jaso bada, ele bietan erantzungo zaio
- Gaztelaniaz jaso bada, gaztelaniaz edo ele bietan erantzungo zaio (kasuaren arabera)
- Etorkizunean euskaraz komunikatzeko aukera eskainiko da; email sinaduran sortutako logotipo berezia sartuko dugu.

### 2.2. Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzerako orduan

Lehen hitza eta esaldia euskaraz egingo dira eta elkarrizketa herritarrak (edo federatuak) aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko da.

---

## II ARDATZA LAN-HIZKUNTZA

---

### 1. BARNE KOMUNIKAZIOA ETA LAN TRESNAK

#### 1.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia

Kanpo errotulazioan bezala, euskara presente egongo da lanari lotutako hizkuntza paisaian. Bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko errotuluak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, ahal den neurrian.

- Espaziorik badago, bi errotulu jarri ahalko dira, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.
- Espaziorik ez badago, errotulua euskara hutsez jarri ahalko da, esanahia argitzeko irudi batek lagunduta.

Elementu hauetan bermatuko da: errotulazio txikia, errotulazio aldakorra eta informala, egitasmo jakinen izenak, sareko edo euskarri informatiboko karpetan eta dokumentuak, lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa eta kafe/janari makina/fotokopiagailuaren errotulazioa.

#### 1.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala

Barruko idatzizko komunikazio orokorretan gutxienez euskara erabiliko da.

Langileen arteko idatzizko komunikazioa euskaraz izango da.

Zuzendaritzarekiko harremana, oro har, bi hizkuntzatan egingo da. Bileretako deialdiak eta aktak euskaraz ere bermatuko da eta gainerako euskarrietan euskararen erabilera bermatzeko modua aztertuko da alde zuzenetatik.

Parte hartzaile guztiek ulertzeko gaitasun nahikoa dutenean, euskara soilik erabili ahalko da.

#### 1.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala

EHSFren Zuzendaritzako zein bestelako barruko lan bileretan, alde zuzenetatik aztertuko da nola bultzatu euskararen erabilera eta bileraren hasieran jakinaraziko edo adostuko da nola jardungo den bileran. Horretarako, partaideen hizkuntza gaitasuna, hau da, hitz egiteko zein ulertzeko gaitasunak, izango dira kontuan.

Ohiko eta Ez ohiko Batzarrak ele bietan egingo dira, alde zuzenetatik erabakiko da hizkuntzen kudeaketa nola egingo den eta Batzarraren hasieran jakinaraziko da. Partaideei nahi duten hizkuntzan parte hartzeko aukera bermatuko zaie.

Parte hartzaile guztiek ulertzeko gaitasun nahikoa dutenean, euskara soilik erabili ahalko da.

## **1.4. Baliabide informatikoak**

Kanpoko erabiltzaileentzako baliabide informatikoak euskaraz eta gaztelaniaz bermatuko dira.

Barruko programa informatikoei dagokienez, merkatuan euskarazko aukerarik dagoen aztertuko da; aukera dagoen kasuetan, horien instalazioa kasu bakoitzean aztertuko da eta langileei aukeran emango zaie.

# **2. KANPO-HARREMANAK**

## **2.1. Administrazioa**

Administrazioarekiko harreman formalak, ofizialak, ele bietan egingo dira. Harreman ez ofizialetan, euskaldunekin euskaraz egingo da.

## **2.2. Erakunde pribatuak**

Erakunde pribatuekiko harremanak euskaraz izatea sustatuko da. Ahozko harremanetan lehen hitza euskaraz egingo da eta hala jarraituko da bi aldeek adostuta.

Hornitzaileekiko harremana euskaraz izatea sustatuko da. Hornitzaileen bitartez zerbitzua eman behar denean, euskara irizpideen berri emango zaie eta aukeratzeko irizpideetan euskara txertatuko da.

## **2.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak eta abar.**

Beste entitateekiko harremana euskaraz izango da ulermena bermatuta badago eta hala adostu bada.

# **3. KUDEAKETA SISTEMA**

## **3.1. Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea**

### **4.1.1. Hizkuntzen kudeaketa, helburuak eta ebaluazioa**

Estrategia eta kudeaketari dagokionez, hauek bermatzeko neurriak hartuko ditu Zuzendaritzak:

- Hizkuntza irizpideak ezarri dira, indarrean daude eta jarraipena egiten zaie.
- Erakunde barruko eta kanpoko interes-taldeen hizkuntza beharizanak kontuan hartzen dira
- Aurrerapen-mailaren jarraipena eta ebaluazioa sistematikoki egiten da: urte hasieran urteko Kudeaketa plana onartzeko, egin ahala jarraipena egiteko eta urte

amaieran amaierako balorazioa, betetze mailaren deskargua egin eta neurri zuzentzaileak adostuko dira.

- Proiektuetan euskararen aldagaia sartzen da (euskararen ezagutza eta erabilera jasoko edo neurtuko dira). Adibidez: lantaldeak antolatu badira, zenbat lantalde aritu diren euskaraz; interbentzioak egon badira, hizkuntza jaso...

#### **4.1.2. Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak**

Giza baliabideei dagokienez:

- Euskara planaren ardura EHSFko langile batek izango du
- Zuzendaritza batzordeak Euskara plana babestuko du,
- Euskera Batzordeak, Hizkuntza irizpideei jarraipena egingo dio eta beharrezko erabakiak hartuko ditu.
- Euskara planaren kudeaketarako aberasgarria izango da Euskara Batzordea izendatzea, langileen eta zuzendaritzaren ordezkartzeekin.
- Lanketa zehatzetarako lantaldeak osatuko dira

Baliabide ekonomikoei dagokienez, administrazioen dirulaguntzak, ohikoak eta ez ohikoak, baliatuko dira euskara planaren garapenean laguntzeko



## JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

### ARDURADUNAK ETA BALIABIDEAK

Hizkuntza irizpideak Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu eta bete daitezzen agindua ematea presidenteari dagokio. Hau da, presidenteak arloetako arduradunei irizpideak bete daitezzen agindua emango die.

Arloetako arduradunei / langileei dagokie onartutako hizkuntza irizpideak euren jardueretan bete daitezzen neurriak hartzea (urteroko gestio planeko helburuetan jasotzea eta eguneroko jardunean gauzatzea...)

Hizkuntza irizpideak gauzatzeko baliabide pertsonal eta ekonomikoak jartzeko ardura Euskera Batzordeak izango du urteko gestio planean oinarrituz.

### ZABALKUNDEA

EHSFren ohiko komunikazio kanalak erabiliko dira zabalkundea ziurtatzeko, eta informazioa kide guztiei helduko zaiela ziurtatuko da.

### JARRAIPENA

Jarraipena urtean behin egingo du Euskara Batzordeak, aurkitutako desbideratzeen berri, Zuzendaritza Batzordeari emango zaio eta ekintza zuzentzaileak eta egokitzapenak egiteko epeak adostuko dira.

